


KANTU-KONTARI

Txuma Murugarren

Neskatxoaren korroa



'NIN-COM-POP'

(Lali Puna, 'Scary world theory', Morr Music-2001)

Muskizerako trenean gozo bidaiatzen da eguna bukatu denean, etxera bueltan. Gau honetan, Lali Punaren musika entzuten da bozgorailuetatik. Gertakizun harriarria zinez. Eta gau heldu berriaren misterioa areagotzen du, ia hutsik dagoen tren honetan, Valerie Trebeljahr-en ahots hipnotikoak. Jendea trenera sartzen hasi da, ordea, bi, hiru, bost... Eta haien elkarrizketen marmarraren artean ezin aditu daiteke lehen bezain argi. Tarte-ka baino ez da aditzen.

Halako batean, sakeleko telefono batek jo du. Nire ondoan dagoen neskatxoaren telefonoa da. Telefonoz bestaldetik mintzatzen zaionak ustekabe bat eman dio, neskak begiak irekitzen dituelako neurri gabe. Ahotsa altxatu gabe, ahalegin handiak eginez, tonu neutroa mantentzen



saiatzen ari dela, galdetu dio lagunari zergatik doan bizitzera beste herri batera eta segidan ea betiko doan, betiko, sekulako. Neska oso gaztea da. Hamabost bat urte izango ditu eta «betiko»

hitza bere ezpainetan entzutean, «betiko» horrek sortzen dion ezinegona susmatzean, kontzeptu horren esanahiaz hausnartzen hasi naiz. Zer da betiko neskatxo horrentzat? Zer da betiko bere lagunarentzat? Urtebete, bi urte, hilabete batzuk. Noraino ailegatzen da hamabost urteko baten begirada? Betiko desberdinak ditugulakoan nago. Gazte garenean eta zahartzean, betiko, aspaldiko eta horien antzeko kontzeptuak desberdinak dira batentzat edo bestearentzat. Zabaldu edo txikitu egiten dira, ez dute berez neurri bera, inolaz ere. Baina, zenbakiz ez dakien bihotzean, ez al da betikotasun berbera barru-barruan sentitzen den hori? Neskatxo honentzat ez al da betiko erbestertze zigorra baino latzagoa lagun hori beste herri batera «betiko» joatea?

Negar puntuan dagoela iruditu zait, gaua zeharkatzen ari den trenaren leihatilan, iluntasunak ispilu bihurtutakoan, bere aurpegia disimulan ikusten dudanean. Eta, gertakizun harriarria zinez, marmarrak baretu dira une batez eta musika berriro ere aditu da garbi, eta neskatxoaren buruaren gainean altxatu da, tristurazko korroa txuri baten antzera.

«Zer da betiko neskatxo horrentzat? Zer da betiko bere lagunarentzat? Urtebete, bi urte, hilabete batzuk. Noraino ailegatzen da hamabost urteko baten begirada? Betiko desberdinak ditugulakoan nago»

DISKOAK

Egitura eta kaosa hitzen labirintoan



MIKEL LABOA
'Xoriek 17'
Elkar

Okerrena ez da akatsak egitea, ezta akats horiei kontra egitea ere, okerrera akatsak ezkutatzea da». Bertolt Brechten hitzak dira, Mikel Laboak azken hamar urtean egin duen aurreneko lan honetan leku handia duen idazlearenak. Esaldiari helduta, akatsak (edo gabeziak) aireratzea zintzo jokatzeari daiteke.

Lan honek aireratzen duen akatsa ez da Laboaren ahotsa askotan ezinean entzutea, horrek mesederik egiten ez dion arren. Izan ere, bada ahots horrek beti izan duen transgresio indarraren arrastorik, Iñaki Salvadorren pianoak ezarritako oinarriaren gainean tentsioa gero eta handiagoa, ia jasangaitza, egiten da-

kienarena. Black Francis egiten zuen antzeko zerbait Pixies taldean, euskal taldeetan nahitanahiezko eragina izan zuelarik, Laboaren musika ulertzeko moduek izan duten bezala. Indar hori, tantaka bada ere, soma daiteke lan berri honetako zenbait unetan. Arriskua da koherentzia lirikoak kaos estilistikoa ekartzea, eta horrelakorik badago diskoan. Post-rock zartako gordinak, *Ne me quitte pas* (Brel) eta *Piedra y camino* (A. Yupanqui), Billie Holiday eta lekeitioak, free jazz asaldatzeak... gauza guztiek norabidea eta intentzioa daukate, baina diskoak ematen duen nahaste sentsazioak ez du laguntzen bertan planteatzen diren joko eta gogoeta inte-


resgarrietan parte hartzeko. Ideia eta kontzeptu labirintoa izanda ere, *Xoriek 17*-k badu egitura; lehen atalak Brechten obra lantzen du, bigarrena *In Memoriam* delako mirespen ariketa da bost mugimendutan, hirugarrena Lisabörek eginiko *Orduan* kantu dentsuak osatzen du, eta azkenak txorien munduan egiten du habia. Karnaba, xoxo, galeper eta, besterik gabe, txorien kontuak dakartza kantu eginak, haiek ere heriotzaren aurrean gu bezain elbarri, haiek ere gure beldur eta neke berberak inguruan. Beti jakiten du ordea txoriak norabidea aldatzeko unea zein den, baita hegan egiteko moduan den eta nahikoa haize izango duen ere. **Asier Leoz**

2005eko onenak. Urteak eman duenaren balantzea egiteko garaia heldu da, eta hasi dira urteko disko aipagarrien zerrendak kaleratzen. Frantziako *Liberation* egunkariak berea egin du aste honetan. The Rakes taldearen *Capture/Release* aukeratu dute egunkariko musika kazetarietako urteko diskorik onena, bigarren Bright Eyesen *I'm wide awake, it's morning* geratu da, Verone bikotearen *Retour au zoo* hirugarren, Herman Düneren *Not on top* eta Jackson Heights laugarren, eta Arcade Fire-ren *Funeral* bosgarren.

FIB Benicassim. Hilabeteak falta dira oraindik jaialdirako —gogoratu, uztailean izango da, eta ez abuztuaren orain arte bezala—, baina antolatzaileek lehen taldearen izena baieztatu dute. Depeche Mode izango da egitearen izen nagusietako bat.


Calexico. Apirilaren 11n kaleratuko dute Joey Burnsek eta John Convertinok disko berria, *Garden ruin*. Taldearen bosgarren diskoa izango da eta JD Fosterrek ekoiztuko du. Apirilean ere Calexico eta Iron & Winek bira bat egingo dute Europan zehar, aurten elkarrekin egindako *In the reins* diskoa aurkezteko.

'Entzun!' Euskarazko musika aldizkariak *Euskal bideoklipen bilduma 2* DVDa kaleratu berri du. Captain Nemo, Motorsex, Surfin Kaos, Seiurte, Muted, Idi Bihotz, Sorkun, Ken Zapzi, Gatillazo, Biok, Koma, Split 77 eta Lor-en lanak biltzen ditu, besteak beste.



GILLES PETERSON
'Gilles Peterson presents
teh BBC sessions'
Ether Records

Gilles Peterson egungo irratigizona bilakatu da honez gero Radio One delakoan. Disko bilduma bikoitz hau bere estudioan hartutako bisiten lekuko zabala da: Roisin Murphy, Beck, Nitin Sawney, Herbert, N.E.R.D., Beth Gibbons, Jamie Cullum... puntako gonbidatuak ditugu sesio interesgarri honetan. Kantuak Londresko BBC Maida Vale estudio ospetsuetan aireratuak izan ziren eta artxibotara joan ordez (beste hainbat bezala) lan honetan aurkitu dute plazaratzeko modua. Diskoak Jamaika eta hip hop musika dauzka aintzat batez ere (The Roots, Common, Roots Manuva...) baina bestelako ekarpen aberasgarriak bildu ditu ere, Björk kantariaren *Who is it* apaina adibidez, igande goiz batean jaso. **A.L.**



DARREN HAYMAN
'Cortinland'
Acuarela

Zinez atsegina da pop musikan hain eroso mugitzen den norbait entzutea. Tarteka Elvis Costelloren argumentu berberak ditu eskuartearen, baita aspaldiko The Cars taldearen jostailuzko elektronikak hura ere. Jakina, Hefner taldearen *avant-garde* ukitua ere soma daiteke, Hayman bera zelako talde ingelesaren burua. EP hau osatzen duten 5 abestiak (50en artean hautatuak) biribilak dira, non zapaltzen duen ondo dakienaren segurtasunaz eginak. Haymanen alderdi bareak (alderdi txolina 2006an izango omen dugu bueltan) maitasuna eta maitasun eza dauzka hizpide eta berak egindako marrazkia diskoaren azalean. 11 urte zituela, munduaren amaiera eta azken ez-tanda nuklearra dibujatzen saiatu omen zen bertan Hayman. Gozoa tipoa. **A.L.**



KATIE MELUA
'Piece by piece'
Dramatico Records

Jazz/blues proposamenarekin entzuleria zabalarengana iristeak arriskua dauka; bigarrenak, bluesak, instalatuta uzten du artista, marraren alde batean edo bestean; errespetuan (Norah Jones) edo politonoetan (Alicia Keys), eta nekez lortzen dute artistek tokiz aldatzea. Katie Melua ingelesa —2003an *Call of the search* izan zuen estraineakoa—, lehen taldean koka genezake. Lan berriaren aurrekoak zituen heldulekuei eutsi die (Meluak egundoko ahots polita dauka), eta egungo produkzio aseptikoei ihes egin. Aurrekoan emaitza ona ekarri zion balada epikoaren errekurtsioa baztertu gabe (*Nine million bicycles*) goitik behar-rako blues lanetan ere sartu da, eta konposaketa zein soinu aldetik aberatsagoa egin du diskoa baina poliki, dosi txikietan. **A.L.**